

Frankismoaren aurkako euskal aukera berri bat

Alderdi, 293. zk., 1974-06/07.

Txikiak eta exkaxak dira frankismoaren aurkako lanetan gaur oraindik bere tokia artu ez duten euskal taldeak.

Frankismoaren aurrean euskaldunek erakutsi duten kidetasun onen eragina sakona da. Ixtorigileak, soziologoak eta politikoak ba dute emen euskal nortasunaren erroak zelakoak eta nondik norakoak diren aztertzeko alor zabal eta aberatsa; Estadu espainolean gainontzeko erriak nolabait gure antzeko egokieran bizi badira ere, gure erriak bereziak izan dituen kemenarekin erantzun dio aginte pertsonal eta basatiak berekin dakarzkien ondoreei.

Euzkadiko Jaurlaritza orrenbeste urtetan bizirik gordetzeko iraupena erakutsi duen erria bera da au.

Jaurlaritza erriak osatu zuen, noski, eta ontatik datorkio indarbidez nolabait gure instituzio onen irauteak eman dion 38 urte oietan erriak egin duanari alako bizkar-egur baten antzeko tente bat, atzotik eta gaur arte erri oso baten ekintza somatzen bait da iraupen ontan, eta erri zabal-zabalean noski, frankismoaren barruan erejia zirudien euskal-apaizen jokabidetik asi eta erriko langileak berean dituen neke bearrean erakutsi duen arnas arteraino.

Egia da, noski, gaur Euzkadin nabarmentzen asi diren indar guziak ez direla 1936an erriak aukeratu zuen Euzkadiko Jaurlaritzan ageri.

Ontarako arrazoiak adieraztea erraza da, eta ulertzea ere bai; baina euskaldunak garaiz-garai galderei gure erantzuna emateko erakutsi izan dugun doai orrek bultzata aukera berri bat egin bear dugu. Ba da, noski, denok lotzen gaituen kidetasun bat, erritasuna eta demokraziari dagokiona, eta noski, inoiz baino bakarti eta estuago dabilen diktadore zaar au gainberatzeko asmo eta bearraren eragina, gizon probidentzialetik kanpo erri-bide bat denon artean egiteko nabaitzen dugun bear larria.

Denok ala nai badugu ere, oraindik Jaurlaritza gaurkotzeko modurik ez dugunez, gaur askatasunaren alde lan egin nai dugun guziak urrats bat bezala ekin dezaiogun elkarrekin lanari, eta aal dugun laixterren instituzioaren gaurkotze osoa gainduko dugu.